

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN 2023KO DEIALDIA

Udalbatzak 2019ko apirilaren 1eko ohiko Osoko Bilkuran, lehenengo etxebizitzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantza hasiera batean onartzea erabaki zuen. Testua 2019ko ekainaren 17ko 114. zenbakiko BAOean argitaratu zen.

1. ARTIKULUA.- Xedea

Deialdi honen xedea Amorebieta-Etxanoko Udalak herrian bizi diren familiei babes ekonomikoa emateko dirulaguntzak eskuratzea da, oztopo arkitektonikoak kentzen laguntzeko hain zuzen eta, zehatzago, lehenengo etxebizitzetan bainuontzia kendu eta dutxa jartzeko, dutxa irisgarririk ez dutenean eta betiere Amorebieta-Etxanoko udalerriaren barruan.

Deialdi hau Amorebieta-Etxanoko Udaleko Alkate-Udalburuak egingo du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratuko den iragarki bidez.

2. ARTIKULUA.- Onuradunak

Dirulaguntza eska dezakete etxebizitzaren jabeak edo maizterrak. Azken honek jabearen idatzizko baimena beharko du.

Dirulaguntza eman ahal izango zaie Amorebieta-Etxanon erroldatuta dauden 80 urtetik gorakoei, betiere ondoko baldintzak betetzen badituzte:

1. Eskatzailearen ohiko etxebizitza izan behar da.
2. Onuradunak egunean izan beharko ditu Udalarekin zerga betebeharrak.

CONVOCATORIA 2023 PARA LA CONCESION DE AYUDAS ECONOMICAS PARA LA SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS.

La Corporación en Sesión Plenaria Ordinaria celebrada el día 1 de abril de 2019 acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal Reguladora para la concesión de subvenciones para la supresión de barreras arquitectónicas en domicilios de primera vivienda, publicándose el texto en el B.O.B. nº 114, de fecha 17 de junio de 2019.

ARTICULO 1.- Objeto

El objeto de la presente convocatoria es el acceso a las ayudas que se otorgarán desde el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano con el fin de proporcionar apoyo económico a las familias residentes en el municipio de Amorebieta-Etxano, para contribuir a la supresión de barreras arquitectónicas y más concretamente el cambio de bañera por ducha en domicilios de primera vivienda, que no dispongan de una ducha accesible, dentro del término municipal de Amorebieta-Etxano.

La presente convocatoria se efectuará por la Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, mediante anuncio que será publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia, y en la página web del Ayuntamiento.

ARTICULO 2.- Personas beneficiarias

Podrán solicitar la subvención el propietario o propietaria del domicilio o su inquilino o inquilina con la autorización por escrito de la propiedad.

Podrá concederse esta subvención a aquellas personas, mayores de 80 años, empadronadas en Amorebieta-Etxano y que cumplan los siguientes requisitos:

1. Deberá ser el domicilio habitual del o de la solicitante.
2. El beneficiario o beneficiaria deberá encontrarse al corriente de pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

3. Onuradunak eta ezkontideak ezin izango dituzte gairitu 15.000 euro ondare higigarrian eta ezin dute eduki bigarren etxebizitzarik jabetzan.
4. Onuradunak Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. art. an ezarritako baldintzak bete beharko ditu onuradun izateko.
5. Onuradunak obraren berri eman beharko dio Udalari, IL0107 tramitearen bidez.

3. La persona beneficiaria y su cónyuge no podrán superar los 15.000 euros de patrimonio mobiliario, ni podrán disponer de una segunda vivienda en propiedad.
4. La persona beneficiaria deberá cumplir los requisitos indicados en el artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones para obtener la condición de beneficiaria.
5. La persona beneficiaria deberá comunicar la actuación de la obra al Ayuntamiento, a través del trámite IL0107.

3.-. ARTIKULUA. Aurrekontu zuzkidura.

Dirulaguntza hauek 2023ko udal aurrekontuan jasotako aurrekontu zuzkidura daukate, 2314 48000 partidan, 3.600 euroko zuzkidura.

ARTICULO 3.- Dotación presupuestaria.

Estas subvenciones disponen de una dotación presupuestaria contemplada en el presupuesto municipal del 2023, en la partida 2314 48000 con una dotación de 3.600 euros.

4.-ARTIKULUA.- Diruz lagundu daitekeen gastua

Diruz lagundu daitekeen gastua lehenengo etxebizitzan bainuontzia kendu eta dutxa jartzeko gastuak estaltzeko izango da, etxebizitza horietan dutxa irisgarriak ez badute.

ARTICULO 4.-Gasto Subvencionable.

El gasto subvencionable irá dirigido a cubrir los gastos derivados del cambio de bañera por ducha en domicilios de primera vivienda, que no dispongan de una ducha accesible.

5. ARTIKULUA.- Dirulaguntzen zenbatekoa

Eman daitekeen gehieneko zenbatekoa 2.500 euro izango da 2023. urtean, Enplegu eta Gizarte Gaietako kontseilariak 2022eko martxoaren 10eko Aginduan arautzen duen bezala. Agindu horretan zehazten dira gizarte larrialdietarako laguntzetako gastu bakoitzerako gehieneko zenbatekoak 2021ean.

Etxebizitzako emango den laguntzaren zenbatekoa, familia unitateko errenten arabera izango da (eskatzailea eta ezkontidea). Urteko familia errenta osatzen dute aldizkako diru-sarrera gordinek, horren barruan gelditzen direlarik kapital higigarri eta higiezinaren etekinak.

ARTICULO 5.- Cuantía de las ayudas

El importe máximo a conceder será de 2.500 euros durante el año 2023, tal y regula la Orden de 31 de enero de 2023 de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, por la que se establecen, para el año 2023 las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos contemplados en las Ayudas de Emergencia Social.

La cuantía de la Ayuda por domicilio se valorará en función de las rentas de la unidad familiar (solicitante y cónyuge). Se entiende por renta familiar anual los ingresos periódicos brutos, incluidos rendimientos de capital mobiliario e inmobiliario

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

20.000 € gordinera arteko errentak dituzten familia-unitateei emango zaien dirulaguntza, gastuaren %80koa izango da.

20.001 eta 25.000 € gordinera arteko errentak dituzten familia-unitateentzat: gastuaren %70.

25.001 eta 30.000 € gordinera arteko errentak dituzten familia-unitateentzat: gastuaren %60.

30.001 eta 35.000 € gordinera arteko errentak dituzten familia-unitateentzat: gastuaren %50.

35.001 eta 40.000 € gordinera arteko errentak dituzten familia-unitateentzat: gastuaren %40.

40.001 € gordin baino errenta altuagoak dituzten familia-unitateentzat: 300 €.

Zenbatekoa zehazteko, kontuan izan beharko dira obraren gastuak eta honek sortzen dituen udal tributuak.

Para rentas de la unidad familiar hasta 20.000 € brutos anuales la subvención será del 80 % del gasto.

Para rentas de la unidad familiar entre 20.001 hasta 25.000 € brutos: 70 % del gasto.

Para rentas de la unidad familiar entre 25.001 € hasta 30.000 € brutos: 60% del gasto-

Para rentas de la unidad familiar desde 30.001 hasta 35.000 € brutos: 50% del gasto.

Para rentas de la unidad familiar desde 35.001 hasta 40.000 € brutos: 40% del gasto.

Para rentas de la unidad familiar mayores de 40.001 € brutos: 300 €.

Para la determinación de la cuantía deberán ser tenidos en cuenta tanto los gastos de la propia obra como los correspondientes a los tributos municipales en que se incurra.

6. ARTIKULUA.- Eskariak, agiriak eta aurkezteko epea

Eskariak, Udaleko Alkate-Udalburuari zuzenduak, Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dira edo Administrazio Prozedura Erkidearen 39/15 Legearen 16. art.ak ezarritako moduan eta epeak betez. Eskaria etxebizitzaren jabe bakarrak edo maizterrak egin beharko du.

1. Eskari horrekin batera, ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- Eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen agiria eta, hala badago, ezkontidearena.
- Jabetza eskrituraren kopia edo Jabetza Erregistroaren informazio-ohar soila.
- Alokairu kontratua, hala badagokio, eta jabearen baimena, eskaria maizterrek egiten badute.
- Egin beharreko obraren aurrekontu bi. Dirulaguntza emateko aurrekonturik

ARTICULO 6.- Solicitudes, documentación y plazo de presentación

Las solicitudes, dirigidas a la Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento, se deberán presentar en el Servicio de Atención Ciudadana o por cualquiera de los medios señalados en el Art. 16 de la Ley 39/15, del Procedimiento Administrativo Común. La petición será realizada por la propietaria única del domicilio o su inquilino/a.

1. Junto con dicha solicitud deberá aportarse la siguiente documentación:

- Documento acreditativo de la identidad de la persona solicitante y en su caso del cónyuge.
- Copia de la escritura de propiedad o nota simple informativa del registro de la propiedad.
- Contrato de alquiler, en su caso, y autorización de la propiedad si la solicitud la formulan los o las inquilinas.
- Dos presupuestos de la obra a realizar. Para la concesión de la subvención se tendrá en

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

merkeena kontuan izango da.

cuenta el presupuesto más económico.

- | | |
|--|--|
| <p>e) Eskatzailearen eta honen ezkontidearen banku egiaztagiriak, diru-kontuen egoera eta banku tituluak.</p> <p>f) Ondasun eta errenta egiaztagiriak eta Foru Ogasunaren azken urteko bankuko kontuen egiaztagiria, baita Estatuko Tributu Agentziaren landa eta hiri ondasun eta higiezinaren egiaztagiria eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren egiaztagiria edo Udalari baimena eman agiri hauek beste administrazio batzuetatik lortzeko.</p> <p>g) Banku helbideraketa.</p> <p>h) Eraikinen azterketa teknikoa, izapide hau beharrezkoa denean.</p> | <p>e) Certificados bancarios relativos al estado de cuentas y títulos bancarios, de o de la solicitante y su cónyuge.</p> <p>f) Certificados acreditativos de bienes y renta y certificado de cuentas bancarias del último año de Hacienda Foral así como Certificado de bienes e inmuebles rústicos y urbanos de la Agencia Tributaria Estatal y certificado del Instituto Nacional de la Seguridad Social o autorización al Ayuntamiento para obtener esta documentación de otras administraciones.</p> <p>g) Domiciliación bancaria.</p> <p>h) Certificado de la Inspección Técnica de Edificios, en los casos en que sea obligatorio este trámite.</p> |
|--|--|
-
- | | |
|--|---|
| <p>2. Ez dira kontuan hartuko Udalak emandako dirulaguntzen justifikazioa aurkeztu barik dutenen eskariak, justifikazioa aurkezteko epea amaituta badago.</p> <p>3. Beste erakunde publiko zein pribatu batean helburu berdinerako dirulaguntza eskatu bada, Amorebieta-Etxanoko Udalean aurkeztu den eskarian horrela egin dela adierazi beharko da eta baita zein erakunderi eskatu zaion dirulaguntza eta zenbat eta, hala badagokio, zenbat jaso den.</p> <p>4. Artikulu honetan adierazitako dokumentu eta agiriez gain, Udalak, kasu bakoitzean, beste edozein agiri gehigarri eska diezaioke eskatzaileari, aurkeztutako proiektuaren baloraziorako beharrezkoa dela uste badu.</p> <p>5. Eskariak ez baditu betetzen oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza guztiak, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio gehienez hamar egunetako epe luzaezinean zuzentzeko. Horrela egingo ez balu, eskarian atzera bota dela ulertuko da eta 39/2015 Legearen 21. art.an</p> | <p>2. No se tendrán en cuenta aquellas solicitudes formuladas por personas que tengan pendiente la presentación de la debida justificación de subvenciones recibidas del Ayuntamiento cuyo plazo hubiese concluido.</p> <p>3. En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para una finalidad análoga ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de las instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación y la cuantía solicitada, o en su caso, recibida.</p> <p>4. Además de los documentos y datos relacionados en el presente artículo, el Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al o la solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.</p> <p>5. Si la solicitud no reúne todos los requisitos establecidos en las Bases reguladoras, el órgano competente requerirá al interesado o interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días, indicándole que, si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución</p> |
|--|---|

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

ezarritakoaren arabera emango da ebazpena.

que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015.

Eskariak eta dagozkion agiriak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 17an amaituko da.

El plazo de presentación de las solicitudes y de la documentación correspondiente finalizará el 17 de noviembre de 2023.

7. ARTIKULUA.- Prozedura

ARTICULO 7.- Procedimiento.

Instrukzioa eta proposamena

Instrucción y propuesta

1.- Organo instruktorea Amorebieta-Etxanoko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko zuzendaritza izango da. Honek organo eskudunak erabakia hartzeko beharrezko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatu ahal izango ditu. Organo eskuduna ondokoek osatuko dute:

1.- El Órgano Instructor será la Dirección de Acción de Social del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, que realizará cuantas actuaciones estime oportunas para determinar, conocer y comprobar los datos en virtud de los cuales debe formularse la correspondiente resolución a través del órgano competente que estará compuesto por:

- Presidentea: Arloko zinegotzia edo ordezkatzten duen pertsona.
- Hiru bokal: Arloko teknikaria, Idazkaria edo Kontu-hartzailea edo ordezkatzten duen pertsona.
- Idazkaria: Arloko teknikaria edo ordezkatzten duen pertsona.

- Presidenta: Concejal/a del Área o persona que la sustituya.
- Tres vocales: Técnico/a del área, Secretaria e Interventora o persona que la sustituya.
- Secretaría: Técnica del Área o persona que la sustituya.

Dagokion Batzordeak eskariak aztertu eta ebaluatuko ditu eta irizpen bat egingo du, organo eskudunak ebazpen proposamen bat egiteko.

Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas por la correspondiente Comisión, y, mediante un dictamen, realizará una propuesta de resolución al órgano competente.

2.- Interesdunei behin-behineko ebazpena jakinaraziko zaie eta hamar eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

2.- Se realizará la notificación de la resolución provisional a las personas interesadas, concediéndoles un plazo de diez días para la presentación de alegaciones.

3.- Hala badagokio, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo da eta zein eskatzaileri dirulaguntza ematea proposatzen den eta zenbat esan beharko da. Baldintzak bete dituzten guztien artean emango da dirulaguntza. Ondorioz, behin behineko ebazpenari aurkeztutako alegazioak onartuz gero, behin betiko proposamenean aldaketak egon daitezke.

3.- Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva que deberá expresar la relación de personas solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía. La subvención se concederá entre todas las que hayan cumplido las condiciones; por lo tanto, en caso de que se aprueben las alegaciones presentadas ante la resolución provisional, pueda haber cambios en la propuesta de resolución definitiva.

Ebazpena.

Resolución.

1.- Behin betiko ebazpen proposamena onartu ondoren, Alkate-Udalburuak prozeduraren

1.- Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva la Alcaldesa-Presidente resolverá el

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

gaineko erabaki arrazoitu bat hartuko du, prozeduran ebazpenaren oinarriak egiaztatuta gelditu beharko direlarik.

2.- Ebazpenean berariaz adierazi beharko da gainontzeko eskariak gaitzetsi direla.

3.- Erabakia hartu eta jakinarazteko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da. Adierazitako epean erabakirik hartzen ez bada, aurkeztutako eskaria gaitzetsi dela ulertuko da.

4.- Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko da eta ordaintzeko modua.

Alkate-Udalburuak dirulaguntza emateko hartutako erabakiak administrazio bidea amaituko du eta interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40 art. eta ondorengo arabera eta aplika daitekeen legediak ezarritako epean berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkezteko epea hasiko da.

8. ARTIKULUA.- Ordaintzeko modua

Dirulaguntza emateko erabakia hartu ondoren, honen zenbatekoa hilabeteko epean onuradunak eskarian adierazitako kontuan sartuko da.

9.- ARTIKULUA. Hautatzeko irizpideak

Dirulaguntza emateko oinarrizko irizpidea eskariak aurkezteko ordena kronologikoa izango da, Oinarri Arautzaileek eta deialdi honek eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen badira eta horretarako aurrekontu nahikoa badago.

Dirulaguntza ukatu ahal izango da arrazoituta, Eraikinen Azterketa Teknikoaren arabera, higiezinan akatsak antzematen badira eta hauek egonkortasunari, segurtasunari, estankotasunari edo egitura finkatzeari eragiten badiote.

Aurrekontu kreditu nahikorik ez balego ekitaldi bakoitzeko udal aurrekontuan, arrazoi

procedimiento mediante resolución motivada, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.

2.- La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso del resto de las solicitudes.

3.- El plazo máximo para resolver y notificar será de 4 meses. La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

4.- En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

La resolución de concesión de la subvención emitida por la Alcaldesa-Presidente pondrá fin a la vía administrativa y será notificada a las personas interesadas, conforme a los artículos 40 y ss. de la Ley 39/2015, abriéndose el plazo para la presentación de Recurso de Reposición y/o Recurso Contencioso Administrativo en los plazos establecidos por la legislación aplicable.

ARTICULO 8.- Forma de pago

Adoptado el acuerdo sobre concesión de la subvención, el importe de ésta se ingresará en el plazo máximo de un mes en la cuenta bancaria que el beneficiario o beneficiaria haya señalado a tal fin en el impreso de solicitud.

ARTICULO 9.- Criterios de selección

El criterio básico para el otorgamiento de la subvención será el orden cronológico de presentación de solicitudes, siempre que reúnan todos los requisitos que exigen las Bases Reguladoras, la presente convocatoria y mientras exista cobertura presupuestaria.

Podrá denegarse motivadamente la subvención en el caso de que, con arreglo a la Inspección Técnica de Edificios, se detecten desperfectos en el inmueble que afecten a su estabilidad, seguridad, estanqueidad o consolidación estructural, que no hayan sido debidamente reparados.

En el supuesto de que no hubiere suficiente crédito presupuestario en el Presupuesto Municipal de cada

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

horregatik baztertuta gelditzen diren eskatzaileak, araudi hau eta dagokion deialdian zehaztutakoa betetzen badute, hurrengo deialdiko onuradunen artean sar daitezke, jadanik adierazitako hautaketa irizpideen arabera eta dagokion eskaria aurkeztuz.

10.- ARTIKULUA.- JUSTIFIKAZIOA.

Dirulaguntzaren justifikazioa gehienez ere 6 hilabeteko epean aurkeztu beharko da, obra amaitu ondoren edo, hala dagokionean, dirulaguntza ordaindu zenetik 3 hilabeteko epean. Egindako obraren faktura originala erantsi beharko da, ordaindu izanaren egiaztagiria eta kontratatutako enpresaren egiaztagiria, obrak indarrean dagoen araudia betetzen duela dioena.

11. ARTIKULUA.- ITZULTZEKO ARRAZOIAK

Dirua eta berandutza interesak itzuli beharko dira edozein kasutan, bestelako erantzukizunak eragotzi gabe, ondokoetan:

-Dirulaguntza lortu, horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo lortzea eragotziko luketenak ezkutatzuz.

-Udal lizentziak baimendutako obra proiektua osorik edo zati batean bete ez edo obra egiterakoan diruz lagunduta ez dauden kontzeptuak edo unitateak gehitu.

-Udalak egiaztatze eta kontrolatzeko egiten dituen jardueren aurrean, erresistentzia agertu, aitzakiak edo oztopoak jarri.

-Oinarri arautzaileetan edo indarrean dagoen araudian jasotako beste edozein arrazoi.

12. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Arau-hauste eta zigorren araubidea

ejercicio, los y las solicitantes que queden excluidas por tal motivo, y cumplan la presente normativa y lo determinado en la convocatoria correspondiente, podrán ser incluidas como beneficiarias en la siguiente convocatoria que, en su caso, se acuerde aprobar, atendiendo a los criterios de selección antes señalados, presentando la correspondiente solicitud.

ARTICULO 10.- JUSTIFICACIÓN.

La justificación de la subvención, se deberá presentar en un plazo máximo de 6 meses, una vez finalizada la obra, o en su caso en un plazo máximo de 3 meses una vez abonada la subvención, debiéndose adjuntar factura original de la obra ejecutada, justificante de pago, así como certificado de la empresa contratada de que la obra cumple con la normativa vigente.

ARTÍCULO 11.- CAUSAS DE REINTEGRO

Procederá en todo caso el reintegro con la exigencia de intereses de demora, sin perjuicio de otras responsabilidades en los supuestos siguientes:

-Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

-Incumplimiento total o parcial del proyecto de obras autorizado por la licencia municipal o inclusión en la ejecución de la obra de conceptos o unidades de obra no amparados por la subvención.

-Resistencia, excusa u obstrucción a las actuaciones municipales de comprobación y control.

-Cualquier otra causa recogida en las bases reguladoras o establecidas en la normativa vigente.

ARTICULO 12.-INFRACCIONES Y SANCIONES

El régimen de infracciones y sanciones, será el

Saila / Área Acción Social Comunitaria / Gizarte Ekintza Komunitarioa	
Agiria / Documento BIE17111P	Espedientea / Expediente: AYT/4223/2023
Balidazio kodea / Código de validación 0F64615A3Z5H065T0B4H	
Asunto / Gaia Convocatoria Deialdia	

azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. Tituluan eta aplikatu daitezkeen gainontzeko legerian ezarritakoa izango da.

establecido en el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre y demás legislación que resulte aplicable.

13. ARTIKULUA.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Dirulaguntza hau ondokoek arautzen dute:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra.
- Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua.
- Amorebieta-Etxanoko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorra (2008ko abuztuaren 6ko 149 zk.dun Bizkaiko Aldizkari Ofiziala).
- Amorebieta-Etxanoko udalerrian lehenengo etxebizitzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko dirulaguntzak ematea arautzen duen berariazko ordenantza. (2019ko ekainaren 17ko 114. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

ARTÍCULO 13.- NORMATIVA APLICABLE

Esta subvención será regulada por:

- Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre.
- Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ordenanza general de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano (Boletín Oficial de Bizkaia nº 149, de 6 de agosto de 2008).
- Ordenanza específica para la concesión de subvenciones para la supresión de barreras arquitectónicas en domicilios de primera vivienda dentro del término municipal de Amorebieta-Etxano. (Boletín Oficial de Bizkaia nº 114, de 17 de junio de 2.019)

14.- ARTIKULUA. INDARREAN SARTZEA

Deialdi hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean.

ARTÍCULO 14.- ENTRADA EN VIGOR

La presente convocatoria entrará en vigor el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.